

**2023. URTEKO JARDUERA PLANA**
**I. Aurrikusitako jarduerak**
**1. JARDUERA**

## A. Identifikazioa

Jardueraren izena	Industria inbertitzailearen kultura sustatzea, tokiko enpresa-ehuna garatzeko palanka gisa, hezkuntza eta ikerketa-jarduerak garatuz edota babestuz, bai eta ezagutza zabaltzea ere, hitzaldi, mintegi eta argitalpenen bidez.
Jarduera mota	Propioa
Jarduera sektoreka identifikatzea	Arrisku Kapitala
Jarduera garatzeko lekua	Euskal Herria

*Egin beharreko jardueraren deskribapen zehatza*

Finantza-ezagutzak eta berrikuntzari eta ekintzailtzari buruzko ezagutzak gazteen (ikastetxeak, unibertsitateak eta lanbide-heziketako zentroak) eta txikizkarien artean zabaltzera bideratutako jarduerak, bai eta ETEentzako finantzaketa alternatiboari buruzko informazioa zabaltzea ere, batez ere.

Zehazki, 2023an egitea aurreikusten diren jarduera nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Campus Fundazioa: gazteentzako (16-23 urte) egokitutako metodologia duten prestakuntza-saioak, enpresa eta finantza-munduan sartzeko. Espero dugu lurralde-inguruneke unibertsitateen, batxilergoko ikastetxeen eta lanbide-heziketako ikastetxeen laguntza izatea. 12 saio aurreikusten dira, eta saio bakoitzean 25 parte-hartzaile izango dira, batez beste.
- Finantzaketa alternatiboari buruzko jardunaldiak ETEentzat: finantza-erakunde pribatuetatik datozen finantzaketa-iturri berriei buruzko 4 jardunaldi. Zer eskaintzen du arrisku-kapitalak?
- Startupetan inbertitzen hasteari buruzko ikastaroak garatzen laguntzea. Helburua da txikizkaria hurbiltzea, eta inbertsioaren hastapen horretan dauden mito batzuk ezabatzea, gizartean finantza-interesa eta kultura sortzeko, startupetan egindako inbertsioan arreta berezia jarritz.
- Dibulgazioko beste jarduera batzuk, enpresa-elkarteetara eta administrazio publikoetara hurbilduz, besteak beste, inbertsio-industria eta enpresa-ekintzailtza sustatzeko.

## 2. JARDUERA

### A. Identifikazioa

Jardueraren izena	Bekak eta laguntzak ematea
Jarduera mota	Propioa
Jarduera sektoreka identifikatzea	Arrisku Kapitala
Jarduera garatzeko lekua	Euskal Herria

#### *Egin beharreko jardueraren deskribapen zehatza*

Jarduera horren barruan sartzen dira, batez ere, honako ekimen hauek:

- CFAn eta M&A eta Private Equityn espezializazio-ikastaroak egiteko 10-15 beka ematea.
- ProActivos sareari laguntzea Lurraldeko enpresetako administrazio-kontseiluetan emakume gehiago kokatzeko prozesuan, prestakuntza-ekintzak barne.

## 3. JARDUERA

### A. Identifikazioa

Jardueraren izena	Inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzailearen jarduera sortzea eta laguntzea, horrek lurraldearen garapen iraunkorra lagundu dezan
Jarduera mota	Propioa
Jarduera sektoreka identifikatzea	Arrisku Kapitala
Jarduera garatzeko lekua	Euskal Herria

#### *Egin beharreko jardueraren deskribapen zehatza*

Kudeatzailearen jarduera sortzea eta babestea, haren jardueretan errentagarritasuna kontuan hartzeaz gain, ingurumen, gizarte eta gobernu korporatibo oneko (IGG) irizpideak ere kontuan hartzen dituen inbertsio-estilo bat bultzatzea, lurraldearen garapen jasangarrian laguntzeko helburuarekin.